


## Euskal AEko eraikuntzaren sektorea %-1,6 murriztu zen 2008ko laugarren hiruhilekoan

### Eraikuntza %-4,2 jaitsi zen eta Obra Zibila %3,5 hazi

EUSTATEk landutako datuen arabera, 2008ko laugarren hiruhilekoan, lan egutegi homogeneoan eta urte artean %-1,6 murriztu zen, termino nominaletan, Euskal AEko eraikuntzako jardura.

Urtaroen eragina zuzendu eta gero, 2008ko laugarren hiruhilekoan eraikuntzaren sektorea %-0,9 murriztu zen, 2008ko hirugarrenaren aldean.

### 1. grafikoa: Euskal AEko Eraikuntzaren Koiunturako Indizearen urte arteko hiruhileko hazkunde zuzendua Guztira, Eraikuntza eta Obra Zibila (%) (%)



Iturria: Eustat

2008ko laugarren hiruhilekoan eraikuntza sektorearen bilakaera gehiago oinarritu zen Obra Zibila azpisektorean, Eraikuntza azpisektorean baino. Izan ere, lehenak urte arteko %3,5eko igoera izan zuen, eta bigarrenak, berriz, %-4,2ko jaitsiera.

Hiruhileko arteko terminoetan, 2008ko laugarreneko jardura 2008ko hirugarrenekoarekin alderatuta, bi sektoreek bilakaera negatiboak izan dituzte, Obra Zibilak %-0,3 eta Eraikuntzak %-1,2.

Eraikuntzako enplegua 2008ko laugarren hiruhilekoan %-1,7 jaitsi zen hirugarrenaren aldean.

## Eraikuntza sektorearen jardueraren balantzea 2008an

Euskal AEko Eraikuntzaren Koiuntura Indizearen 2008ko balantzean %2ko hazkunde metatua dugu, bi azpisektoreetako bilakaerak guztiz ezberdinak direlarik: Eraikuntzan jarduera %-1,4 jaitsi zen; Obra Zibilean hazkunde metatu ikusgarria izan zen, %+9,2, Eraikuntzaren bilakaera negatiboa konpentsatuz.

Langile okupatuak %-3 jaitsi ziren urteko metatuan.

### 1. taula: Euskal AEko Eraikuntzaren koiunturaren indizea 2008ko 4. hiruhilekoa. Aldakuntza tasak (%)

| Kontzeptua                   | Zuzendua          |               | Desestazonalizatua |                   |
|------------------------------|-------------------|---------------|--------------------|-------------------|
|                              | 4.hir08 / 4.hir07 | At / At-1 (1) | 4.hir08 / 3.hir.08 | 3.hir08 / 2.hir08 |
| <b>Produkzioaren indizea</b> | -1,6              | 2,0           | -0,9               | 1,1               |
| Eraikuntza                   | -4,2              | -1,4          | -1,2               | -0,4              |
| Obra zibila                  | 3,5               | 9,2           | -0,3               | 4,0               |
| <b>Landunen indizeak</b>     | -                 | -             | -1,7               | -1,3              |

(1) t urteko urtarretetik t urteko azken hiruhilekora arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urtearen aldi beraren aldean

Iturria: Eustat

**Ohar metodologikoa:** 2008ko laugarren hiruhilekoko Eraikuntzako Koiuntura Indizea 2005 oinarri hartuta egin da, 2003 oinarriari jarraitzen diolarik. Oinarri aldaketa honek beste abantaila batzuen artean honakoa dakar: Euskal AEko industria-sektoreko enpresa informatzaileen ordezkatzepanela eguneratzea, enpresa-kopurua eta sektore-estaldura nabarmen gehituz, eta europar gomendioei jarraitzen zaie; izan ere 0 eta 5 bukatutako urtea egokitzen jotzen dira oinarri izateko.

#### Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: [eustat@eustat.es](mailto:eustat@eustat.es)

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: [www.eustat.es](http://www.eustat.es)

Datu-bankua: [www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp](http://www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp)